



Mila Gallastegi - Asier Aranzabal*

SAHARAREN BARRENAK MIATZEN

Oinez Tassili N'Ajjerko harean eta haitzetan zehar

TASSILI N'AJJER, sumendi batetik sortutako landaretzarik gabeko goi-ordokia da. Aljeriaren hegoaldean kokatua dagoen goi-ordoki honek basamortuko hareazko lurretik gora egiten du 1800 metrotako garaieraraino. Gure ibilaldiaren bereizgarritasuna Tassili handiaren ertzetik eta Erg Admer duna itsasora arteko mugan ibiltzerakoan aurkituko ditugun paisaien aniztasunean datza, haitzek eta dunek sortutako labirinto eta sakan luze eta estuen artean. Gure asmoa erraza da: Tuaregen lurralde hau gure pausuek ezartzen duten erritmora ezagutzea. Eta murgilketa hau ahalik eta sakonena izatea nahi dugunez, laguntza zereginetarako bertako garraioidea aukeratu dugu, dromedarioak hain zuzen. Hauek bidaian beharko dugun janari eta ur guztia garraiatuko dute. Aldi berean, guretzat horren ezegaduna den inguru honetaz disfrutatzeke talde tuareg baten gidaritza izango dugu lagun.


■ Harea eta harkaitzak Tisras inguruan



* Eibarren jaio eta hazi ziren arren, **Mila Gallastegi** (1972/05/23) eta **Asier Aranzabal** (1971/01/29) gaur egun Amorebieta-Etxanon bizi dira. Gaztetatik Euskal Herriko eta Pirinioetako mendietan ibiltzeko zaletasuna izan dute, baita naturari buruzko irudiak jasotzeko ere. Duela urte batzuetatik hona, zaletasun hauei lotuta, zenbait bidaia egin dituzte elkarrekin munduan zehar oinez –natura eta kultura uztartzeko gizakiok ezagutzen dugun modurik sinpleena erabiliz–, edota bertakoen ohiko garraioak erabiliz: kanoa, zaldia... Honela, Nepalen, Perun, Marokon, Etiopian, Mongolian, Indonesian, Argeliako Saharan, Iranen eta Malin izan dira besteak beste. Bidaiazteko filosofia honi, esker, paisaia ikusgarriak eta bertako biztanleak nahiz beraien kultura hurbilgotik ezagutu ahal izan dituzte.

RESUMEN

VISITAR el desierto argelino y llevar a cabo una travesía por sus atormentados paisajes es una aventura deseada por todo viajero que se precie. Mila y Asier nos cuentan la experiencia que vivieron durante siete días acompañados por unos guías de la zona, en la que tuvieron posibilidad de acercarse no sólo a los paisajes desérticos característicos de este espacio geográfico, sino también a los modos de vida de los pueblos que tradicionalmente se han movido por el Sahara. El artículo se complementa con algunos otros datos sobre los tuareg, su hábitat y sus formas de supervivencia en uno de los desiertos más extensos e inhóspitos de la tierra. Una propuesta de trekking que sin duda resultará atractiva a muchos aventureros que busquen algo más que coronar cimas de renombre.



Bihotzaren taupadak oraindik ez zaizkigu beren erritmo normalera jaitsi. Laurok bata besteari begiratzeko diogu behin eta berriz, irribarretsu geure burua estuasunetik salbu sentitzen baitugu Aljer hiriburutik Sahara basamortuaren barnean dagoen Djanet herrira garamatzen hegazkin honetan jada

eserita. Aljerko aireportuan bidaia honen momenturik estresagarrienak bizi izan ditugu. Bartzelonatik Aljerrera gindekartzan hegalditik gure motxilak ez baititu inork eraman barne hegaldien terminal honetara, Bartzelonako aireportuan agindu ziguten bezala. Hegazkinera igotzeko orduan mostradoreko arduradunak mailetak eskatu dizkigutenean agertu da ulertezin hau. Nazioarteko terminalera

korrika batean atera gara Belen, Iratxe eta Asier. Gure motxiletaraino heltzea ez da erraza izan, Aljerko aireportu honetan polizia kontrolak munduan beste inon baino zorrotzagoak eta ugariagoak baitira. Guzti honi frantsesez hitz egiteko gai ez garela gehitzen badiogu, pentsa ezazue gure adrenalina maila noraino igo den. Bitartean, Mila hegazkinaren sarreran geratu da bertako arduradunei gu gabe ateratzen ez uzteko.

■ Asier, Belen, Iratxe, Barka eta Mila Tiouytataren mendiko duntan



Aljeria arriskutsua?

Aljeriari buruz europarrok dugun iritzia, gatazka politikoak eta terrorismoak jotako herrialdearena da, bertara bidaiatzea arriskutsua izanik. Ideia hau ez da erabat egiazkoa. Badira bai gatazka politikoak eta honi eutsiriko gertakari latzak. Baina hauek Aljer hiriburura eta inguruetara mugatzen dira. Guk ezagutu nahi dugun ingurunea Aljer hiriburutik bi mila kilometro hegoaldera dago, tuaregen ohitura eta bizimoduaren eraginpean, aipatutako gatazketatik at. Tuaregak Islamean sinesten duten arren, erlijio honekiko jarrera oso liberala dute. Islama bereganatu zutenetik beren kasa praktikatu dute, beren jatorrizko ohitura eta sinestuetara egokitu. Azken hamarkadetan, herrialdearen hegoaldean ez da Aljeriako gatazka politiko-erlijiosoari lotutako gertakaririk bat ere ezagutu.



■ Emakume tuareg nomaden taldea

Gauerdia hurbil dago eta oraindik bi ordutako hegaldia geratzen zaigu betebeteta doan hegazkin honetan. Lokartzerik ez daukagunok, pentsamenduekin jolastea baino beste aukerarik ez dugu. Sahara dago orain gure buruan. Hauxe izango da basamortu batean *trekking* edo ibilaldia egingo dugun lehen aldia. Duela urte batzuetatik hona, munduko paisaia ederrak eta bertako biztanleak ere, gizakiok ezagutzen dugun modurik sinpleena medio, hots, oinez ezagutzeko asmoari ekin genion. Bi urte dira Sahara basamortuan oinez ibiltzeko ideia bururatu zitzaigula. Marokoko Atlas mendietan ibili ondoren, Sahara basamorturaino hurbildu ginen kotxez, basamortuko dunen gainetik ilunabarra ikusteko asmotan. Une hura miresgarria izan zen. Basamortuko duna itsasoek paisaia sinplea baina ederra osatzen dute. Egunaren ordu horretan batez ere, harearen arreak eta zeruaren urdinak kolore magiko bihurtzen dira. Han goian eserita geundela duna itsasoetan barrena sartu eta paisaia miresgarri hartan

■ Talafazo ouedetik ateratzen

zenbait egunetako zeharkaldia egiteaz amets egin genuen.

Esan bezala, bi urte beranduago amets hura egia bihurtzea erabaki genuen. Laster konturatu ginen ibilaldia egiteko lekua aukeratzea ez zela erraza izango, Sahara oso handia baita. Izan ere, zortzi milioi kilometro koadroko zabalera izanik, munduko basamorturik handiena da Sahara. Iparraldeko hamabost eta hogeitamar graduko latitudeen artean kokatuta, Afrikako kontinentea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du, iparraldeko eta hegoaldeko Afrika banatuz. Hareazko azalera ikaragarri honetan sekulako lautadak daude. Adibidez, Tanezrouft Aljeriaren hegoaldean eta Teneré Nigerren. Baita mendikate handiak ere: Hoggar ezaguna ez ezik, Tassili N'Ajerr (Aljeria), Adrad (Mali) eta Ayr (Niger) ere. Hasiera batean gure asmoa duna itsasoetan barrena astebetetz ibiltzea zen. Aldiz, laster konturatu ginen ibilaldia gogor samarra izan zitekeela, alde batetik harea artean gora eta behera ibiltzea oso neketsua delako, eta bestetik atsedendaldietan inongo itzalik ez dagoelako, eta gainera

astebeteko ibilaldian paisaia monotono bihurtu daitekeelako. Honela aniztasun gehiagoko paisaia baten bila hasi ginen. Berau Aljeriako hego-mendebaldean aurkitu genuen, Libiako mugatik oso hurbil, Tassili N'Ajjerren hain zuzen.

Tassili N'Ajjer sumendi batetik sortutako landaretzarik gabeko goi-odorkia da. 350000 kilometro koadroko zabalera du -ia iberiar penintsularen erdiak beste- eta batez besteko 1800 metroko altuera dute bi *plateau* osatzen dute, bata bestearen gainean, bi maila bezalakoak. Tuaregen *Tamâhaq* hizkuntzan *tassilik* 'ordoki' esan nahi du. Paisaia ilargi itxurakoa da goi-ordorki harritsu honetan. Bizitza miraria da, uraren soinua aspaldidanik entzuten ez delako. Lurralde honek urtean 20-30 mm euri ura besterik ez du jasotzen eta planetako ingurune lehorrenetakoa da. Europako esploratzaileek Saharan aurkitu zuten azken lurraldeetako bat izan zen, batetik bertara heltzea oso neketsua baitzen eta, bestetik, bertako biztanleek biziki defenditzen baitzuten. Inguruko garrantzitsuena den Djanet oasia mapetan lehen aldiz 1803an agertu zen arren,





■ Barka

britainiar espedizio bateko lehen europarrak ez ziren hara heldu 1850era arte. Hartziko lurralde puska hau duna itsaso handiez inguratuta dago: hegoaldean Erg Admer, ekialdean Erg Auguid, iparraldean Issouane eta Bourarheteko *ergak* eta mendebaldean Libiako lurraldean barneratzen da Mourzouqeko dunetaraino.

Gure ibilaldiaren erakargarritasuna Erg Admer duna kateen eta Tassili handiaren ertzetik ibiltzean aurkituko ditugun paisaien aniztasunean datza. Zortzi egunetan, gutxi gorabehera ehun eta hogeik kilometro zeharkatuko ditugu Djanetetik biztanleriarik gabeko Essendilleneko oasiraino, haitzek eta dunek sortutako labirinto eta sakan luze eta estuen artean. Essendilleneko sakanari jarraiturik, Erg Admerreko duna katea ikusgarrietan bukatuko dugu bidaia.

Goizeko ordu bietan hartu dugu lur Djaneten. Aurrez adostuta geneukan hotelak ez digu erreserba errespetatu eta hotelaren aparkamenduan dagoen *jaima* batea eman dugu gaua. Goizean goiz, gure gidaria izango denak eta txofer batek jaso gaituzte hotelean eta lur orotako ibilgailu batean Djanetetik bospasei kilometrora eraman gaituzte basamortuan barrena. Ekialdera kontrargiak eraginda, Tassili handia itzal beltz handi bat bezala ikus dezakegu, zeruaren urdin argiaren azpian. Djaneteko oasiaren palmadia atzean utzi dugu eta basamortuarekin muga ezartzen duten azken landareak gudua galtzen ari direla dirudi hareazko paisaia honetan.

Djanet: Tassiliko perla

Djanet Tassiliko oinetan ibar alubial batean kokaturiko oasi lasaia da. Palmadi batek eta zenbait Ksourek (gotorleku) osatzen dute. 1094 metroko garaieran egonda ere, kokapen honek babesten du basamortuko haizetik. Neguan klima leuna da. Udan, aldiz, ikaragarritzko beroa egiten du. 10000 biztanle ditu gutxi gorabehera, gehienak KeL Ajjer tribuko tuaregak direlarik.

Herri honen xarmak bere iraganarekin bakarrik egiten du lehia, basamortuko merkatarien karabanen pasagune zenean. Palmondoen azpian hazitako baratzen edertasunak eta lasaitasunak, eta atzean Tassiliko gailurrek sortzen dituzten paisaiak argazkilari asko erakartzen ditu gaur egun, Tassilik eta inguruko basamortuen edertasunak gu bezalako turistak erakartzen dituzten bezalaxe.

Baina azken urteotan beste mota bateko bidaiariak ere jasotzen ditu. Djanet eta Tammanrasset (Aljeria), Agadez (Niger), Sabha Koufra (Libia), Aiun (Mendebaldeko Sahara), Noaudhibou (Mauritania) eta Saint-Louis (Senegal) hiriak, Sahara azpiko Afrika eta Magrebaren arteko migrazio sareekin kontaktatzeko pasagune bihurtu dira, Europarako azken jauzia egin aurretik. Djanetera heltzen diren migrari gehienak goizaldean heltzen dira gau osoan basamortuan zehar beldurrez eta hotzez dardaran ibili ondoren. Bertan postu militarra dago eta trafikariak autoz hurbiltzera ausartzen ez direnez, migrari gaixoak basamortuan abandonatzen dituzte, azken zatia oinez egin dezaten. Gainera, dagoeneko bidaia luze honetarako aurreratuta zuten dirua agortu zaie eta hilabete (edo urte) batzuk ematen dituzte hemen edonolako lanetan: asfaltatzen, ur putzuak egiten, igeltsero lanetan, eraikuntzan...

■ LEHEN EGUNA: TISRAS ETA IN ALOUKOU

Tisras izena duen ingurunean lau dromedario eta bi gizon daude gure zain. Elkarri agurtu diogu. Moussa dromedariozaina da, Mohamed sukaldaria eta Barka gidaria, espedizioaren burua. Astebetez laguntza taldearen menpe egongo gara, guretzat horren ezezaguna den inguru honetaz disfrutatzeko. Motxilak kotxetik jaitsi eta hirurak hasi dira lanean, fardel guztiak antolatzen, dromedarioek beharrezko guztia garraiatuko baitute, ura barne. Fardelak pisuaren arabera sailkatu dituzten bitartean, dromedarioei argazkiak ateratzen hasi gara, inoiz animalia hau ikusi ez bagenu bezala (neurri batean egia dela esan genezake, era honetako animaliak ez baititugu egunero ikusten). Fardelak dromedarioen gainean lotzeko zereginean parte hartzen saiatu gara elkarkidetzaz sustatzeko asmoarekin, baina laster konturatu gara lagundu baino gehiago traba egiten dugula. Elkar ezagutzeko hizkuntza oztopo izango dela ere konturatu gara, gu ez frantsesez eta

ez tamashâqez mintzatzeko gai ez baikara, ezta eurak ingelesez mintzatzeko ere.

Ordu erdian dromedarioak prest daude bidaiari hasiera emateko, eta besterik gabe oinez hasi gara hiru tuaregen atzetik, zein norabide hartzen dugun asko arduratu gabe. Bertara ekarri gaituen kotxea ere kontrako norabidean desagertu da laster. Hurrengo zortzi egunetan ez dugu beste inoren laguntzarik izango. Baina horri ez diogu erreparo handirik egiten orain, paisaia ezezagun honetan ibiltzeak erabat liluratuta baikauzka laurok, Belen eta Asier batez ere, argazki kamara eskuan dutela nonahi argazkiak atera eta atera dabilta eta. Duela bi urte amestutakoa egia bihurtzen hasiak gara.

Lehenengo egun honetan paisaia aldakorra da. Hasieran hareta eta haitza nahasten dira, bata bestetik bereizten ez delarik. Beranduago, hareazko dunak nabarmenagoak dira. Hauen artean, bereziki bat deigarria da, hareatik bertatik eskultura baten moduko haitz beltz handi bat ateratzen baita. Bazkaldu ondoren, batik batik osatutako lautada handi batean sartu gara. Lautada honetan ibiltzea aspergarri samarra egin zaigu,



erreferentzia puntuak ez baitira ia mugitzen eta beroa nabaria delako. Egarria eta nekea igartzen hasi gara eta goizeko lehen emozioak isiltasunera eraman gaitu laurok. Gaur lehenengo eguna izateagatik, hasiberrien zerga ordaindu dugu. Ibilaldiaren hasieran, emozioak jota, ez gara konturatu kantinplorak hutsik daramatzagula. Bazkalorduan, gure gidariek alde batetik eta guk bestetik bazkaldu dugunez, ez dakigu lotsagatik edo zergatik, ez gara ausartu eman diguten ur kopurua baino gehiago eskatzen. Ez dakigu guztira zenbat ur daramagun, ezta bidean urez hornitzeko iturririk izango ote dugun ere. Goizeko ibilaldia urik gabe aise jasan dugunez, arratsaldekoa ere zergatik ez?

Egun osoan hego-mendebalderantz ibili ondoren, In Aloukou *oued* edo erreka bidean sartu gara, ipar-mendebaldera aldatuz. *Oued* hitzak arabiarrez erreka esan nahi du. Afrikako iparraldean eta batez ere basamortu inguruneetan erreka bidea adierazteko erabiltzen da, nahiz eta ia urte osoan zehar urik gabe egon. Uholdeen ondorioz bakarrik dabil ura bide hauetatik. Harkaitz beltz erraldoiez inguratuta, ozta-ozta egiten dugu aurrera bide bakarreko norabidean, harean ibiltzeak sortzen duen nekeak eta egarriak jota. Bada ordu eta erdi Moussak eta bere gameluek aurrera egin eta ez ditugula ikusten. Barka gidaria eta Mohamed sukaldaria gure aurretik doaz berbeta etengabe. Noizean behin guri begiratu eta aurrera segitzen dute. Guk irribarre batez erantzuten diegu nekea ezkutatu nahian. Azkenik, arratsaldeko bostak inguru, gure dromedarioak ikusi ahal izan ditugu, fardelik gabe! Gaurko ibilaldia bukatu da! Guztira 16 kilometro egin ditugu. Uraren kontua argitzea izan da gure lehenengo kezka. Kuadernotxo bat medio, tuaregek laster ulertu digute, baita barre ederto egin ere. Berrehun bat litro ur daramagu dromedarioen gainean, nahikoa sei eguneko ibilaldian, Essendileneko oasira heldu arte. Beraz, kantinplorak bete, motxilak kanpamenduan utzi eta azkeneko indarrak erabat erretzeko, hareazko aldapa batetik *ouedaren* goialdera igo dugu eguzkia urrutiko dunen artean sartzen ikusteko.

■ BIGARREN EGUNA: IN ALOUKOU ETA TALAFAZO

Goizeko bostetan eguneko lehen argiekin batera esnatu gara. Mohamed sukaldariak gaueko sugarrak aprobetxatuz, kafea berotu eta ogia xigortu du. Gaua esterila gainean igaro dugu *bivouac* estilora, 15 bat gradutara edo. Goizaldean ere tenperatura atsegina da, sakan estu honek



■ Tuareg

lehen orduko eguzkitik babesten gaituelako. Hortaz, gosaria lasai hartu dugu, ordubetez gutxi gora behera. Ondoren guztia batu eta gameluak zamatu behar dira: beste ordubete gutxi gorabehera. Eta zazpiak aldera ekin diogu ibilaldiari. Goizero-goizero errepikatuko dugu prozesu hau ibiltzen hasi aurretik.

Bigarren egun honetan, In Aloukou *ouedean* barrena jarraitu dugu Mouroudene haitzuloraino. Ibiltzen hasi eta ordubetera arroila estua ireki egin da zirku handi baten barnera sartuz. Zirkuaren hormak leku batzuetan ondo definituta daude, iparraldera batez ere. Beste batzuetan haitz zati puska handiek definitzen dute zirku honen mugak. Eta haitz artean zirkutik sartu edo irtekeko hainbat eta hainbat bide asma daiteke. Gure bidea zein den asmatzea, aldiz, ez da erraza. Eskerrak gidaritzat taldea daramagula gurekin. Barkak ondo ezagutzen du labirinto honetako edozein txoko. Bere aginduak jarraituz, ipar-mendebalderantz jo dugu, sakana berriz estutzen den aldera. Ez da berrogeita hamar metro baino zabalagoa, baina hormak ikaragarriko garaiera dute. Pare bar orduz ibili ondoren, arroiaren erdian ikaragarriko haitz beltz handia aurkitu dugu, pasabidea bi zatitan banatzen duena. Eskubi aldetik joanda, Mouroudene haitzuloko sarrera aurkitu dugu. Haitzulo txiki bat baino ez da, baina bertako freskotasuna mirari baten gisara hartu dugu, kanpoaldean jada beroa jasanezina egiten hasia baita (33° C). Horregatik hemen bazkaltzea erabaki dugu. Bazkari gisa, ia egunero bezala, entsalada jaten dugu gaztaz eta fruituez lagundua. Guztira hiru orduz luzatzen dugu atsedendaldia, beroa jasagarri egiten hasi arte. Gure

adiskide tuaregak ez bezala, Euskal Herriko eguneroko bizitzan batera eta bestera gelditu gabe ibiltzen ohituta gaudenez, sarritan bi orduz paisaia ikaragarri honetan geldi egotea batzuo ez zaigu erraza egiten. Bigarren egun honetan, adibidez, arroiaren hormen goialdera igotzea erabaki dugu, *oued* honetatik harago zer ote dagoen deskubritu eta bere handitasuna argazkitan jasotzeko asmoarekin. Mila, ordea, azkar egokitu da tuaregen bizitza estilora eta gustura ematen ditu atsedeen orduak gerizpetan.

Arratsaldean norabide berean ibiltzen jarraitu dugu, Assasou izeneko bidegurutzeraino. Handik mendebaldera jo dugu beste ordubetez ipar mendebaldera luzatzen den Talafazo *ouedean* sartu arte. Bidean plastikoz, adarrez eta ontziez osatutako txabola modukoak aurkitu ditugu. Familia nomaden bizilekuak dira. Sasoi batez inguru batean egon ondoren, lekuz aldatu behar izaten dute animalientzako landaretza berria bilatzeko (ardiak, ahuntzak, behiak eta dromedarioak). Bizilekuak normalean antzinatik finkatuta izan ohi dituzte eta belaunaldiz belaunaldi leku berberetara joateko ohitura izan dute. Horregatik ez dituzte jabetza guztiak aldean eramaten. Leku bakoitzean bizi izateko oinarriko materialak lagatzen dituzte gordeta. Bidaia honetan bi familia nomadarekin egin dugu topo. Emakumez eta umeez osatutako

■ Ibulalaten eta Teletenzie *oueden* arteko lepora igotzen



taldeak ziren. Lehengo taldeak ez du gurekin kontakturik nahi izan. Aldiz, bigarrenarekin irribarreak eta begiradak trukatu ahal izan ditugu. Haien senarrak Tamanraset hirira bidaiatu dutela esan

digute. Dromedario karabana batzuk ere ikusi ditugu, bata hurbil eta besteak urrutiago. Euskal Herriko mendietan –Karakaten adibidez– aurki daitezkeen bezalako tumuloak ere ikusi ditugu. Tuareg

nomadek ere ohitura hori bera dute. Tumuloaren gainean jarritako harri luzeak bertan gizon bat datzala esan nahi duela jakinarazten digu Barkak. Emakume batentzat bi harri luze jartzen dira.

Tuaregak

Barka, Mohamed eta Moussa tuaregak dira, Djanet oasiko Kel Ajjer tribukoak, inguru honetako biztanleria gehiena bezala. Tuaregak jatorriz berebereak dira. Arabiarrek indarrez sartu zirenean (VII-XI. mendeak) berebereen gizartean zatiketa gertatu zen: Sahararen iparraldean gaur egungo mairuen arbasoak ezarri ziren. Kulturalki arabiarren zirelako deitzen dira mairuak, euren hizkuntza ere galdu zutelarik. Tuaregak, ordea, basamortuko mendietan babestu ziren eta beren tamashâq hizkuntzari eta aspaldiko Tifinagh idazkerari leial mantendu ziren. *Tuareg* izendapena arabiarrek ezarri zieten, 'jaungoikoak abandonaturikoak' adierazteko. Haien beren buruari *kel tamashâq* esaten diote, 'tamashâq hitzegiten dutenak' hain zuzen ere, *euskaldun* 'euskara hitz egiten duena' den bezalaxe.

Tuaregak Saharako lurralde idorrean zehar sakabanatu ziren: Aljeriako eta Libiako hegoaldean, Maliko ipar eta ekialdean, Burkina Faso eta Nigeriako iparraldean eta Nigerko mendebaldean. Tuaregek bertako biztanleak esklabu bihurtu zituzten, leinu, noble eta morroien sistema bat sortuz eta ekonomia nahiz gizarte egitura bitxia ezarri. Herrialde hauekin sortutako nahasketaren ondorioz, haien jatorrizko itxura fisikoa, mediterranearen eiteko zuria, hain zuzen, aldatu egin zen. Ondorioz, gaur egun, behe-Saharako gizaki askori *tuaregak* esaten zaie. Ikus daitezkeenez, tuareg identitatea ez da arraza ezaugarrietan oinarritzen, hizkuntzan eta kulturaren baizik. Tuareg guztiak kultura batekoak dira eta hizkuntza eta idazkera berbera dute, arbasoengandik jaso eta gaur egun oraindik mantentzen dutena.

Nahiz eta herrialde poligamoz inguratuta egon, haien jatorrizko kultura monogamoia da. Nomadak izan arren, oso gizarte antolaketa hierarkizatua dute eta, harrigarria bada ere, matriarkala da. Emakumeek antolatzen dute kanpamenduko bizitza eta beraiek dira seme-alabei leinua ematen dietenak. Askatasun handia dute, ezkontzari dagokionez aurrea hartzen dute eta galdetu egiten zaie familia arteko bizitzaren aldaketa bat egin aurretik. Beloa eramatea ez da derrigorrezkoa eta beren gorputza apaintzeko aske dira. Horrexegatik esaten da basamortuko emakumerik ederrenak direla. Emakumeak ekonomikoki ere independenteak dira, ahuntz eta behi talde baten jabe izanik, bertatik jasotako irabaziak beraienak baitira, eta ez dute senarrarekin konpartitzen. Senarraren betebeharra da, ordea, familiaren mantenu osoa.

Esan dugun legez, herri nomada osatzen dute. Haien ekonomia artzantzan eta merkataritzan datza. Alde batetik bestera ibiltzen dira beren animalien beharrak asetzeko, abereak baitira tuaregen kapitala. Oraindik ere oasi batetik bestera gu ari garen bezala, aspaldiko bide sarea jarraituz ibiltzen diren karabanak ikus daitezke. Iraganean, gameluentzako bide horietan zehar Mauritaniatik Egiptora, Fezetik Timbukturaino, gatza eta marfila bezalako merkantziak garraiatzen zituzten. XIX. mendean karabanek hogeita hamar mila dromedario baino gehiago zituzten, Saharan zeharreko merkataritza guztia kontrolatzen zutelarik.

Saharako herrialde modernoek mugak zeharkatzeko trabak, desertuan bertan kamioien garraiorako eraikitako errepideek eta gobernuek sedentarizatzeko egiten dizkieten presioak direla eta, tuaregak beren kultur nortasuna galtzen ari dira abiadura handiz. Gaur egun tuareg biztanleria gutxi gorabehera miloi bat biztanlez osatuta dago, nahiz %10 bakarrik den erabat nomada. Gainontzekoak basamortuaren inguruko hirietara emigratu behar izan dute bestelako lanpostuak aurkitzera, Barka, Mohamed eta Moussak bezala, turistentzat gidari lanetan jardutera, adibidez. Zenbait herrialdetan, Malin eta Nigerren adibidez, 70. hamarkadaz geroztik, tuaregak gobernuen aurka matxinatu dira autonomia gehiago eskatzeko. Tamalez, munduko beste leku askotan bezalaxe, giza talde honek bere identitatea kontserbatzeko duen nahi sendoa indarkeriaz ahuldua izan da.

Gatazka honi buruz Europan ez dugu apenas informaziorik jasotzen. 2008ko martxoaren 12an albisteak izan da Maliko tuareg matxinatu batzuek bederatzita hilabetez bahituta izan zituzten hogeita bi gatibu aske utzi dituztela. Lekurik gatazkatsuen Kidal eskualdea da.

■ Teletenzie ouedetik Erg Admer dunerara bidean harea gehituz doa eta harkaitzak murrizten.

Tuareg batekin hizketan.

2008ko martxoan Maliko Niger ibaian zehar bertako Pinassa edo kanoa batean egindako beste bidaiak Saharako Timbuktu herri misteriotsura eramanez gaitu. Bertan Saharan zehar gatzaren merkataritzan aritzen zen tuareg batekin izan dugu solasaldia, bere lastozko etxean eta tearen inguruan. Bere izena Agali Ag dela esan digu. Timbuktu herriaren kanpoaldean bizi da, basamortuan. Emaztea eta bi seme-alaba ditu eta bere gurasoak eta anai-arrebak inguruko etxeetan bizi dira. Urtean hiru bidaiak egiten ditu Timbuktuetik 900 kmtara, Maliko iparraldean dauden Toudenni gatz mehatzetaraino. Aita eta anaia lagun dituela berrogeita hamar dromedarioekin tonelada bat gatz ekartzeko gai izaten da. Bidaiak azaro eta otsail bitartean egiten dute, urtaro freskoena delako. Gauaz bidaiatzen dute, bi arrazoiengatik batik bat: bata eguzkiaren beroa saihesteko eta bestea izarren laguntzaz bidea ondo jarraitu ahal izateko. Joan-etorriak hilabeteko zeharkaldia eskatzen du. Tibuktun gatzak beste merkataritza batzuei saltzen die. Hauek Niger ibaian gora Mopti herriraino eramaten dute eta handik errepidez Mali, Burkina Faso, Senegal eta inguruko beste herrialdeetara garraiatzen da. Lan gogorra dela diosku Agalik. Astiro, presa gabe eta ahotsa altxatu gabe hitz egiten du, bake giroa transmititzen, tuareg gehienak bezalaxe.

Gainontzeko urte sasoietan zer egiten duen galdetu diogu guk. Eskulanetan trebea denez, zilarra eta harri bereziekin eratzunak, lepokoak etab. egiten ditu. Batzuetan Sahara basamortua zeharkatu eta Maroko hegoaldeko Zagoraraino bidaiatzen du, bertara hurbiltzen diren turistek saltzeko. Hortxe ikasi omen du ingelesez hitz egiten. Eta ondo gainera!

Familia bitartean Timbuktu inguruan geratzen da, baina aldika-aldika lekuz aldatu behar izaten dute, animaliek jatekoa aurkitu ahal izateko. Umeek Timbuktu eskola koranikoan jasotzen dituzte oinarrizko ikasketak.

Mendebaldeko turiston belarrietan bizitza gogorra benetan!!

Arratsaldeko bostak arte ibili gara, eta gaur ere beste 16 bat kilometro egin ditugu. Mohamed afaria prestatzen hasi da. Gasez dabilen sukaldia daramagu gurekin. Barazki asko daramatzagu eta bildots okela ere bai. Honekin batera euli piloa ere, noski. Zortzi egunetako ibilaldi honetan, okela usteldu gabe nola kontserbatuko ote den galdetzen diogu geure buruari. Baliteke ezer berezirik behar ez izatea, "herrialde aurreratueta" bizi garenok gai honekin erdi paranoiko bizi gara eta. Izatez, beroa handia den arren hezetasuna oso txikia da munduaren alde honetan.

Mohamed sukaldari bikaina da, oso zopa gozoak nahiz lekari eta bildoski lapikokoak prestatzen dizkigu egunero. Moussa, dromedariozaina, lotsatieta da. Gutxi hitz egiten du eta aurretik joaten da beti bere dromedarioekin. Gameluei zama kendu ondoren, aurreko hanka biak bata besteari lotzen dizkie eta "libre" uzten ditu hauek beren afaria aurki dezaten harea artean

■ Erg Admer dunak

hazten den landaretza urrian. Ondoren su apala egiten du inguruko belar lehorrekin, kanpamenduaren erdigunea markatuz. Su hau tea egiteko bakarrik erabiltzen da.

Tuaregentzat tearen prestakuntza zeremonia da. Horregatik infusio hau ez da inoiz gasezko suan egiten. Ogia egiten ere oso trebea da Moussa. Irinaz eta uraz *taguella* izeneko ogi oreka egin eta harea artean txingarren azpian lurperatzen du, poliki-poliki egosi dadin. Afal ordurako ogi egin berria daukagu egunero! Hirurak dira oso jatorrak eta bromarako gogoa izan ohi dute, Mohamedek eta Barkak batez ere. Hau dela eta, hizkuntza desberdina dugun arren, inoiz ez zaigu zaila izan beraiekin hitz egitea. Koaderno bat medio, eguneroko bizitzarako behar diren tamashaqezko hitzak irakasten dizkigute. Joko matematikoak ere egiten ditugu eta elkarren itxurako irudiak egiten saiatzen gara. Kantuan eta dantzan ere egiten dugu ia gauero. Ur bidoiek danbor gisa erabiliz markatzen dute kantuen eta dantzen

erritmoa. Guk ere geure dantzak erakusten saiatu gara eta haurtzaroan ikasitako "banako" bat eskaini diegu. Barre algaraz hasi dira. Zergatik? Dantzari txarrak garelako ala gure dantza ere xelebrea delako haientzat? Auskalo. Zerua izarrez bete arte ez gara oheratzen.

■ HIRUGARREN EGUNA: TIOUYTARENE MENDIA

Hirugarren egunean Talafazo *ouedean* zehar ibili gara goiz osoan. Paisaia aurreko egunetakoen antzekoa da, gaurkoan landare gehixeago ikusi dugun arren. Talafazo *ouedaren* bukean Tiouytatarene mendira heldu gara, Tillelene *ouedaren* sarreran, eta hantxe jarri dugu gaur gaueko kanpamendua. Gaurko ibilaldia hiru bat ordukoa besterik ez da izan, arratsaldean mendira igotzeko asmoa baitugu, bertatik ilunabarra ikusi ahal izateko. Tiouytatarene 'mendi beltza' bezala ere ezaguna da hemen. Ikaragarritzko harkaitz bertikala da ipar aurpegian. Berau igotzeko eskaladan aditua izan behar da. Hegoaldean, aldiz, Erg Admerreko dunek harkaitza besarkatzen dute eta hauei esker harkaitzaren gailurreraino igo ahal izan dugu. Bertatik gozatzen den paisaia ikusgarria da benetan: aurrean "bakeroen" pelikuletan bezalako harkaitz erraldoiak altxatzen dira, urrutian Erg Admer duna kateak ikus daitezkeelarik. Mendebaldera hurrengo egunetan zeharkatuko dugun harkaitz labirintoa ikus dezakegu. Sahara barranean bakardade zoragarri honetaz gozatzen bukatuko dugu eguna, eguzkia zeru ertzean gorde arte.

■ LAUGARREN EGUNA: TIKOUBAOUINEKO LABIRINTOA ETA LABAR-ARTEA

Laugarren egunean Tillelene eskuin aldean utzi eta Tikoubauine harkaitz labirintoan sartu gara. Seguruenik zeharkaldiko egunik ikusgarriena da gaurkoa. Paisaia hareazko dunek erdi estaltzen duten harkaitzek osatzen dute eta hauetan gora eta behera ibiliko gara. Moussak labirinto hau saihesten duen bide errazago bat hartu du dromedarioak ahalik eta gutxien nekatzeko. Goiz erdian, Tikoubauineko arku erraldoira heldu gara. Elefantearen itxura hartzen diogu beste harkaitz honi. Barkak arkuaren azpian mirari bat gordetzen duen kobazulo batera sartzea gonbidatu gaitu. Bertan antzinako labar grabatu batzuk gizakien, behien, bufaloen, jirafen eta beste animalia batzuen irudiak daude ikusgai. Gerizpeko freskotasan

goxoan miresturik, marrazkiek bizkortzen dute gure imajinazioa.


Tikoubaouine labirintoa atzean utzi ondoren, lbulalaten *ouedan* sartu gara, bi horma erraldoiren artean pasabide estu bat zeharkatu ondoren. Ilunabarra laster etorriko denez, bertan akanpatzea erabaki dugu, bakardadean berriz ere. lbulalaten iparraldetik hegoaldera doan arroila da. lparaldean zirku batek mugatzen du bere iturburua. Akanpalekutik ikusgarria da harkaitz hormen garaiera, baita hauen kolore aldaketa ere horitik gorriskara lehenik eta gero larrosa kolorera. Hegoaldean harkaitzak gero eta sakabanatuago daudenez, arroila duna artean galtzen da.

Labar-arte

Sahara ez da beti basamortua izan. Jakina denez, orain dela hamabi bat mila urte, azkeneko glaziazioaren ondoren, hezetasun handiko garai bat hasi zen eta apurtxo bat beranduago, orain dela hamar bat mila urte, neolitikoko gizona agertu zen inguru honetan. Sasoi honi hezetasun handiko bi garaik jarraitu zioten. Behe-paleolito garaian, azkeneko glaziazio handiaren ondoren, orain dela hamabost bat mila urte, inguru hau sabana batez estalita zegoen. Marka hauen egileek, harearen orde, animaliez beterik zegoen sabana bat ikusten zuten. Baina luraren orbitaren lekualdaketak klima aldatu zuen lehorrago bihurtuz. Ondorioz, hareak apurka-apurka larreak irentsi zituen eta gizonak uraren bila joan ziren. Bizileku gehienak munduko ibairik luzeenaren arroan sortu ziren, Nilo erraldoiaren ondoan, bertan zibilizazio handi bat sortu zelarik.

■ BOSTGARREN EGUNA: IBULALATEN ETA TELETENZIE

Bostgarren egunean lehen aldiz mendi lepo batera igo gara. Lepo honek lbulalaten eta Teletenzie *ouedak* banatzen ditu, eta beraz batetik besterako pasabidea da. Bertako ikuspegia ikaragarria da. Arroilak sortzen dituzten hormak are handiagoak dira, erraldoiak erabat. Horma hauen gailurrek oso soslai bereziak



■ Labar artea

marrazten dituzte. Ikusgarrienak hagin itxura dutenak dira. Beste batzuk zerura begira dauden zutabe tenteak dira. Hondar gutxiago eta harrizka gehiago dago zoruan. Han eta hemen zuhaitz lehor batzuk ere ikus daitezke. Ikuspegi honetatik mirestuta geundela, Moussak aurea hartu digu bere dromedarioekin eta lepoaren garaieratik oso txiki ikusten dugu orain, han behean. Guk ez bezala, Moussak ez du inoiz atsedeen hartzen, otordurako lekura heldu arte. Gu aldiz, han eta hemen uneoro gelditzen gara argazki bat edo beste egiteko. Presarik ez dugu eta!

Bazkalordurako (11:00) Essendilene *ouedera* heldu gara. Moussak historik gabeko arantzadun akazia bat aukeratu du bazkarirako. Akaziaren adarren gainean jarritako manta batek emango digu gerizpea. Behar ere bai, ibilaldiaren azken zatia Asierrek nekez burutu baitu. Sukarrak gora egin dio gogoz eta indarrik gabe utzi du. Arratsaldean atsedeen hartu beharko du, eta ezin izango da Essendileneko oasira heldu. Eta pena bat da, bidaiaren zatirik ikusgarriena baita tarte hau.

■ SEIGARREN EGUNA: ESSENDILENE

Zorionez, biharamunean sukarra desagertu egin da eta Essendileneko *guelta* edo oasira bisita



errepikatzea erabaki dugu. Kanpamendutik ordubetera iparralderantz, palmondoak gero eta ugariagoak dira, ura hurbil dagoen seinale. Eguzkia oraindik apal dagoenez, palmondoen berdeak, arre koloreko arroilaren horma erraldoien eta zeruaren urdinaren arteko kolore konbinazioa freskagarria da munduaren zoko honetan. Aurrera egin ahala landaretza gehituz doa. Gutxika-gutxika guretzat ezezagunak diren landareen oihan bihurtzen da, ibiltzea ere zaila bilakatuz. Azkenik arroilaren bukaeran, edertasun bereziko putzu natural batzuk aurkitu ditugu..., urak miraria dirudi. Essendilene sakana osatzen duten horma erraldoi eta bertikalen artean gordeta dauden putzuak, karabanen pasalekua ziren garai batean. Gure gameluek ere ura behar dute, sei egun baitaramate ur tantarik bat ere probatu gabe. Moussak eta Barkak harean zulo bat egin eta oihal batekin estaltzen dute, haren gainean etengabe putzuko ura isuriz. Dromedarioak aldi bakar batean, ehun eta hogeita hamar litro baino gehiago edateko gai direla diosku Barkak.

Kanpamendura itzuli eta Teletenzie arroilean zehar hegoalderantz joko dugu seigarren eta zazpigarren egunetan. lparraldeko arroila erraldoi eta estua poliki-



■ Moussak gaveru ogia egiten du, ikatzaren azpian opila harea artean egosirik

poliki zabalago egiten da. Arroilaren mugak ezartzea gero eta zailago egiten zaigu, harrizko eraketak gutxika-gutxika desagertuz baitoaz. Gure aurrean hori koloreko demaseko hutsa zabalzen da. Gerizpe faltak nekealdia nabarmenago egiten du. Erreferentzia puntu gutxiago dugunez, badirudi ez dugula ezer aurreratzen. Eskerrak haize arin eta mehe batek laguntzen digula. Nahiz eta hareazko ale txikiek aurpegian jo, gustura agurtzen ditugu, bero handia moteltzen baitute eta, horri esker, ez gara 40° Cetatik gora heltzen. Bazkalordua akazia bakarti bat aurkitzean egiten dugu, bestelako gerizperik ez baitago hemen.

■ ZAZPIGARREN EGUNA: ERG ADMER DUNA ITSASOA

Zazpigarren eguneko eguerdi inguruan, Erg Admerreko egundoko duna katea ikusten hasten gara. Ametsetako paisaia hori lehenbailehen zapaldu nahi badugu ere, ezin dugu erritmoa azkartu, bertan dagoela iruditu arren, bi orduko ibilaldia baitago bertara heltzeko. Dunen paisaia honek mirestuta gauzka laurok eta bertara heldutakoan, atsedean hartu gabe, gora eta behera hasi gara umeen moduan. Gaua eta biharamuneko goiza hemen pasatuko ditugu, Djanetera bueltatzeko kotxea gure bila etorri arte. Oraingoan ere, eguzkiari azken agurra emateko inguruko duna garaienera igo dugu. Haizea baretu egin da eta argi-itzalek irudi dotoreak moldatuta, bizitza ematen diote harearen handitasunari. Bertatik geure pausuen



■ Essendilene oueden landaretzak uraren hurbiltasuna adierazten digu

erritmora zeharkatu dugun Sahararen zatitxo honi azken omenaldia eskaintzen diogu. Gurekin etorri diren Moussa, Mohamed eta Barka tuaregentzat ere omenaldia da. Izandako arreeta eta

adiskidetasunagatik eta ingurune bakarti eta eder hauek erakustegatik esker ona agertu nahi diegu. Beren kultura eta ohiturak mantentzeko gai izan daitezten opa diegu. Eskerrik asko. □

IBILALDIAN ZEHAR JASOTAKO KOORDENADA GEOGRAFIKOAK:

Ibilaldian zehar GPS batez koordenatu geografikoak jaso genituen. Google Earth planeta ikuskatzaile batean datu hauek sartuz gero, zehatz-mehatz ikus daitezke non ibili ginen. Paisaiaren berezitasunak ere zehaztasun handiaz ikus daitezke.

Eguna	Ordua	Altuera	Longitueda	Latitueda
2005/03/27	09:29	1160 m	9° 23' 50,420'' E	24° 34' 24,75'' N
2005/03/27	13:56	1193 m	9° 21' 36,540'' E	24° 34' 40,75'' N
2005/03/27	16:01	1157 m	9° 19' 08,116'' E	24° 35' 14,54'' N
2005/03/28	07:15	1143 m	9° 17' 00,380'' E	24° 37' 30,41'' N
2005/03/28	09:46	1166 m	9° 15' 06,411'' E	24° 39' 47,76'' N
2005/03/28	16:00	1092 m	9° 11' 48,630'' E	24° 42' 30,07'' N
2005/03/29	07:31	1177 m	9° 10' 53,610'' E	24° 43' 50,96'' N
2005/03/29	10:21	1188 m	9° 08' 07,243'' E	24° 46' 11,40'' N
2005/03/29	17:10	1303 m	9° 06' 46,250'' E	24° 45' 55,70'' N
2005/03/30	06:50	1153 m	9° 08' 03,048'' E	24° 46' 17,97'' N
2005/03/30	08:21	1204 m	9° 05' 58,640'' E	24° 47' 20,88'' N
2005/03/30	10:00	1197 m	9° 05' 11,040'' E	24° 49' 31,74'' N
2005/03/30	14:08	1213 m	9° 04' 22,990'' E	24° 50' 42,42'' N
2005/03/30	16:21	1237 m	9° 02' 46,930'' E	24° 52' 34,53'' N
2005/03/31	06:47	1171 m	9° 02' 22,150'' E	24° 52' 1,442'' N
2005/03/31	07:48	1187 m	9° 01' 03,719'' E	24° 51' 59,31'' N
2005/03/31	10:53	1144 m	8° 59' 07,970'' E	24° 56' 1,920'' N
2005/03/31	15:16	1152 m	8° 59' 58,460'' E	24° 57' 10,75'' N
2005/04/01	16:12	1203 m	9° 00' 03,600'' E	24° 53' 41,56'' N
2005/04/02	07:35	1148 m	9° 00' 52,170'' E	24° 51' 51,57'' N
2005/04/02	09:23	1178 m	9° 01' 17,220'' E	24° 49' 56,91'' N
2005/04/02	13:12	1180 m	9° 01' 57,390'' E	24° 47' 58,14'' N
2005/04/02	17:00	1207 m	8° 59' 42,840'' E	24° 42' 22,89'' N



AGAZIAK: MILA GALLASTEGI - ASIER ARANZABAL

■ Ibulalaten ovedeko harkaitz dorreak

■ Atsedan orduetan txoko bitxien bila

DATU PRAKTIKOAK

NOLA JOAN: Air Algerie konpainiak (932160008) Madrildik etaartzatzen ditu ia egunero. Baita Arjeldik hegoladeko Tamanrasset herrira. Aljerretik Djanetera, aldiz, astean egun batzuetan bakarrik daude hegaldiak. Iberiak ere baditu Madrildik abiatzen diren hegaldiak. Guk Air Algerierekin bidaiatu genuen. Biletteak geure kasa erosteko arazoak izan genituen, konpainia honek ez duelako antolatzen oso aurretik hegaldien programa. Haiekin telefonoz komunikatzea ere ez da erraza izaten. Bertan mugitzeko, hots, ibilaldiaren abiapuntura joateko edo helmugatik ateratzeko, lurrortako automobila behar da derrigorrez.

NOIZ JOAN: Tassili N'Ajjer inguruan ibilaldia egiteko garairik onena azarotik martxora izaten da. Urtarrilean nahiz otsailean gauak oso hotzak dira -sarritan zero azpiko tenperaturak egoten dira- eta eguneha termometroak ez du 20° Ctik gora egiten. Udan, ordea, beroa jasanezina izan daiteke (45-50° C), baina bere garaierari esker Sahara basamortuko beste leku asko baino freskoagoa da (1100-1800 m). Hezetasun erlatiboa % 20-40 da eta euri gutxi egiten du: urtean 20 mm besterik ez. Hareazko ekaitzak gutxi gorabehera hogeit bat izaten dira urtean, batez ere martxo eta apiril inguruan.

BIDAIAAREN ANTOLAKETA: Gure kontura bidaiatzea atsegin badugu ere, bidaiak laburra zenez (10 egun) agentzia baten laguntzaz baliatzea erabaki genuen. Norberak horrelako ibilaldi bat bertan antolatzeke egun bat edo bi behar dira, guztia ondo badao, noski. Eta guk ez genuen denbora hori. Hala ere, ibilaldia egiteko lekua aurrez guk aukeratu genuen eta agentziak gure eskakizunei erantzuna emanez antolatu zuten bidaiak. Lehen kontaktua Tamanrasseteko agentzia hispano-aljeriar batekin izan zen: La Rosa des Sables Voyages (937514930/635896496). Agentzia honek bertan bidaiak antolatzeke gai bazen ere, hegaldiak ez. Hortaz, bidaiak txartelak geure kabuz erosteko izan genituen zailtasunak zirela eta, bai agentzia honekin eta bai Air Algerieko Bartzelonako bulegoarekin harreman onak zituen Camins del Mon (www.caminsdelmon.net) agentziarekin (Bartzelona) burutu genuen tratua eta haiek arduratu ziren guztiaz, bai hegaldiaz eta bai ibilaldiaz.

IBILTZEKO BESTE AUKERA BATZUK: Tamanrasset herriaren iparraldean Hoggar mendikatea dago. Herritik bertatik abiatuta Garet el Djenun (2330 m) mendiraino egin daiteke ibilaldia. Paisaia harritsuagoa da. Eskalada egiteko ere leku oso ona omen da.

Tamanrasseten hegoaldea Tassili d'Hoggar delakoa dago. Paisaia gu ibili garengoraren antzekoa da, hots, harria eta harearen konbinazioa. Aukera hau baztertu egin genuen, Tamanrassetetik bertatik ezin baitaiteke abiatu, eta gameluek aurrez abiapuntura joan behar dutelako (3 egun). Honek bidaiaren aurrekontua handitu egiten du nabarmen.

Djanetetik ekialdera Libiako mugan Tadrat izeneko lekua ere bada, antzeko paisaia dituen. Djanet bertatik abiatuta Tassili N'Ajjer goi-ordokiaren goialdera igo daiteke ere, bertan ibilaldia egiteko. 800 metroko desnibela gainditu eta goialdeko paisaia erabat harritsu da. Ibilaldi honen erakargarritasuna bertan aurki daitezkeen labar-arteko mustra ugari eta ikusgarriak dira.

DOKUMENTAZIOA: Aljeriara bidaiatzeko bisa behar da. Madrillgo Aljeriako enbaxadan egiten dute (915629705). Paperak eta dirua mezulari baten bitartez bidal daitezke, baina bisa jaso ere. Hamar eguneko epea behar dute gutxienez. Pasaporteak ez du bere balioa galdu behar bidaiaren bukaera datatik hurrengo sei hilabeteetan.

OSASUN KONTUAK: Derrigorrezkoa ez bada ere, atzerrirako medikuntza zentruak tifusaren eta hepatitis A eta Bren kontrako txertoa hartzea gomendatzen dute. Aljeriaren hego-ekialdean malaria arrisku piska bat ere bada. Bestetik, eguzkiarekiko babesa oso garrantzitsua da inguru hauetan eta ura lur azpiko putzuetatik hartzen duten arren potabilizatzea gomendatzen da.

GEHIAGO JAKITEKO: Ibilaldi honi buruzko informaziorik ez dago, baina bai bertako gaiei buruz.

BOREL, Francois & COSTA, Alberto: *Tuareg: Nomadas del Desierto* in www.almendron.com/arte/culturas/tuareg/tuareg.htm

HACHID, Malika: *The Tassili of the Ajjer*, Ed. Paris-Méditerranée, Paris, 2000.

ESPEDIZIOAN PARTE HARTUTAKOAK:

Belen Santiago, Iratxe Garai, Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal.

Bidaia: 2005eko martxoaren 26a eta apirilaren 4a bitartean egin genuen. Guztira hamar egun eta bederatzigau. Basamortuko ibilaldian zazpi egun eta zazpi gau eman genituen.

■ *Egusentia Erg Admerren zortzigarren egunean*

